

Lodifobia



ANTTON OLARIAGA



JUNE FERNÁNDEZ
KAZETARIA

Uda garai oparoa da argaltasunaren diktadurari buruz hausnartzeko, fresko baitugu bainujantzia jartzerakoan emakume gehienok sentitzen dugun ezinegona. *El Salto* egunkarian Sarai Walker *Dietland* eleberraren egileak haxe azaltzen du: “Emakumeen gaineko presioa argal egon daitezen, kontrol sozial mota bat da. (...) Gizarteak emakume lodiak zigortzen ditu, gorputz femeninoari lotutako ideia patriarkalak obeditzen ez dituztelako. (...) Loditasuna gai feminista bat da”.

Lodifobia pertsona lodiek pairatzen duten egiturazko indarkeria eta gorroto diskurtsoa da. Lodi ez gaudenok argal mantentzeko presioa bizi dugu, baina ez dugu indarkeria lodifoboaren krudeltasuna ezagutzen eta ez gara gorputz normatiboa izatearen pribilegioez ohartzen; esaterako, lana bilatzeko orduan.

Erresistentzia handiarekin topo egin ari da lodifobiaren kontrako mugimendua, gure jendartearen zeharo errotuak baititugu hiru mito: 1. Lodi egotea ez da osasuntsua. 2. Gorputz lodiak higuingarriak dira. 3. Loditasuna bertute moral eskasaren ondorio da (sabelkeria eta nagikeria).

Hiru mito horiek deseraikitzen dituzte lodiaktibistek. Biziki gomentatzen dizuet *Klitto* eta *Topatu* atari digitalek egindako erreportaje multimedia, ARGIA-ko webgunean ere topatuko duzuen.

Osasunaren mitoa iruditzen zait bereziki maltzurra. Pertsona baten tainuak ez du bere osasun egoera edo ohiturari buruz ezer fidagarriarik adierazten. Badaude begano lodiak edo kirolzale lodiak. Badaude ere pertsona argal sedentarioak eta Mc Donalds zaleak, baina horiek ez dute bigilantziarik jasotzen. Diabetesak baino min handiagoa eragin dezake bazterkeriak, baina lodien osasunaz hain kezkatuta omen daudenei bost axola lodifobiak eragiten duen kalte emozionala. Magda Piñeyro ekintzailearen hitzaldi batean neska lodi batek kontatutakoa dut gogoan: depresio baja batetik lanera itzuli zenean, lankideek “Oso guapa zaude! Argaldu duzu!”, esan zioten.

Lucrecia Massonek ARGIA-n azaldu du gorputz-masaren indizeak Frantzia duela iturburua eta, kolonialismoaren ondorioz, gorputz kaukasikoetan egindako kalkulua mundu osora zabaldu dela. Medikuek estamentuaren rolaz ere ari da, Danele Sarriugartek egindako

elkarriketa horretan: medikuak bakarrik esan diezaguke zer den ona eta zer txarra, aspaldi apaizak bezalaxe.

Haurdun nagoela topo egin dut osasun sistemaren diskurtso lodifoboarekin. Haurdunentzako yoga klaseetan askok kontatu dute erditu arte mediku eta emaginen presio ikaragarria bizi izan dutela estatistikaren arabera “gehiegi” loditzeagatik, nahiz eta elikadura ohitura egokiak izan eta ariketa fisikoa egin. Bost hilabetez nire pribilegioaz gozatu dut eta ingurukoen hitz goxoak jaso ditut: “A ze sabel polita! Ez zara batere loditu!”. Pasa den astean, emagin berri batek pisua neurtu dit eta errieta egin dit doinu paternalista nazkantearekin: “Hiru kilo hilabete batean! Zer gertatu da ba? Orain arte oso ondo egin duzu! Tira, kontrola zaitetz. Guztira ezin duzu hamar kilo baino gehiago loditu”. Nire errua da, zer edo zer txarto egiten ari naiz eta nire gorputza kontrolatu behar dut estatistikari obeditzeko. Esandakoa: sistemarentzat loditzea osasun arazoa omen da (egia esan, emaginari bost axola ea nire burua ondo zaintzen dudana; nire pisua da inporta duen aldagai bakarra), baina baita ere bekatu bat. Orain penitentzia egin beharko dut izozki bat jaten dudana bakoitzean. ●